

# **“MANUEL GAINZA” APARKALEKUKO BARNE ARAUBIDEA.**

## **1. ARTIKULUA XEDEA.**

Araubide honen xedea “Manuel Gainza” lurrazpiko aparkalekuko erabilera, gozamina, funtzionamendua eta mantentzea arautzea da. Aparkalekua Algorta auzoan kokatuta dago, Telletxe, Bolue eta Euskal Herria kaleak batzen diren lekuan, Getxoko udalerrian.

## **2. ARTIKULUA ADIERAZPEN OROKORRAK.**

1. Araubide hau derrigorrez irakurri behar du aparkalekuko zerbitzua emateko kontratatutako enpresak, langileek, erabiltzaileek eta aparkalekuan edo sarbideetan egon daitezkeen pertsonak.

2. Udalak eta zerbitzua emateko kontratatutako enpresak zainduko dute araubide honetan jasotako arauak betetzen direla, eta udalari edo eskumenak dituen agintaritzari araubidearen urratzeen edo indarrean dagoen gainerako araudiaren urratzeen edo bestelako oharren berri eman beharko dio.

3. Erabiltzaileek eta aparkalekuan edo sarbideetan egon daitezkeen pertsonak zerbitzua ematen duen enpresako langileek adierazitako jarraibideak errespetatu eta bete beharko dituzte araubide hau betetzeko, eta eskumenak dituen agintaritzak zehaztutako bestelako xedapenak ere bete beharko dira, baita ere inguruabarrekin bat eginez, zerbitzu egokia mantendu ahal izateko ezarri ahal izango diren gainerako neurriak.

4. Udal agintaritzaren agenteak edonoiz joan ahal izango dira aparkalekura araubidezko funtzioak betetzera eta justifikatutako arrazoiekin bat eginez, langileek hala eskatuz gero.

## **3. ARTIKULUA DEFINIZIOAK.**

1. Aparkalekuan plazen erabilera mistoa ezarri da, plaza batzuk denbora jakin batean modu eksklusiboan erabili ahal izango direlarik (egoiliarren plazak) eta beste batzuk, bereizi gabeko erabilera izango dutelarik (txandakatze plazak eta abonatuak). Araubide hau aparkalekuko erabiltzaile guztiek bete beharko dute, albo batera utzita okupatzen duten plaza zein motakoa den, eta, araubide honetan jasotzen dira dagokionean ezarri beharreko mota bakoitzarentzako berezitasunak.

2. Artikuluak argitzeko, honako kontzeptuak deskribatu behar dira:

- Erabiltzaile egoiliarak: Partzelaren esleipenaren bidez aparkalekuko plaza bat erabiltzeko eskubidea jaso dutenak, modu eksklusiboan eta denbora jakin baterako; hala, zerbitzu hori jasotzeko prezio bat ordaindu beharko dute.

- Txandakatze sistemaren erabiltzaileak: Prezio bat ordaindu ondoren,aldi batean bereizi gabe eta eksklusibotasunik gabe aparkalekuko plaza bat erabiltzeko eskumena jasotzen dutenak.

- Erabiltzaile abonatuak: Txandakatze erabiltzaileak dira eta epe luzean txandakatzeko aparkalekuko plaza bat erabiltzeko eskumena jasotzen dute, eskusiboa izan edo ez, horretarako, eskatutako denbora-tarteari dagokion prezioa ordaindu beharko dutelarik.

#### 4. ARTIKULUA APARKALEKUA ERABILTZEA.

1. Aparkalekua publikoa da, irteera eta 116 txandakatze plaza ditu P-1 solairuan eta P-2 solairuan, abonatuentzako 40 plaza P-2 solairuan eta egoiliarrentzako 86 plaza P-3 solairuan.

2. Aparkalekuko plazak erabiltzeko, honako arauak beteko dira:

a) Plazak auto arinak aparkatzeko erabiliko dira, galibo muga 2,10 m-koa eta PMA<2.000 kg-koa izango delarik; aparkalekua ezingo da beste erabilera batentzako erabili. Udalak txandakatze aparkalekuaren onarpen eskubidea izango du, dagokion kasuetan egikaritu ahal izango duelarik.

b) Aparkalekura sartzean, ibilgailua aparkatzeko plaza libreak eskuragarri egongo dira.

c) Txandakatzeko aparkalekuko plazak iriste ordenaren arabera emango zaizkie autoei, eta ez da erreserbarik edo lehentasunik emango inolaz ere. Horrez gain, ezin izango dira turismo ibilgailuak ukatu, salbuetsiz, horiek onartzea, beste erabiltzaileentzat arriskutsua edo gogaikarria izatea. Desgaitasuna duten pertsonentzako gordetako plazak salbuetsiko dira, eta bakarrik baldintza hori egiaztatzen duten erabiltzaileek erabili ahal izango dituzte, bereizgarria leku ikusgarri batean jarri beharko dutelarik plaza erabiltzen dutenean.

d) Txandakatze plazak erabiltzeko dagokion prezioa ordaindu beharko da, ezarritako ordainketa bitartekoen bidez. Zenbateko guztia kobratuko da, eta kobratze sistemak soberan dagoen zenbatekoa itzuliko du.

e) Txandakatze erabiltzaileek eta abonatuak ezingo dituzte egoiliarren plazak erabili, eta, aparkalekuak, beharrezko kontrol eta seinaleztapen sistemak izango ditu.

f) Egoiliarren kasuan, bakarrik erabilera eskubidea jasotako aparkalekuko plaza okupatu ahal izango dute eta ezarritako epea bete beharko dute okupatzeko. Era berean, ezin izango dituzte txandakatze plazak erabili, beraien erabilera eskubidearen babesean. Hala eginez gero, txandakatze erabiltzaileen betebeharrak izango lituzkete, eta horiei aplikatu beharreko prezioa ordaindu beharko lukete, deskonturik gabe.

g) Ibilgailu batek plaza bat baino gehiago okupatzen badu edo beste plaza batzuk erabiltzea galarazten badu tamainarengatik, gaizki aparkatuta dagoelako edo bestelako arrazoiengatik, zerbitzua ematen duenak hala eskatu ondoren, okupatutako plazen prezioa ordaindu beharko da.

h) Erabiltzaileek izango dute aparkalekuan, beste ibilgailuetan edo erabiltzaileengan sortutako kalteen ardura, araubide honetan edo aplikatu beharreko legerian ezarritako arauak ez betetzearren, engainuak egitearren, errua izatearen edo axolagabekeriaren ondorioz.

i) Aparkalekuko plazetan edo azpiegitura komunetan ezin izango dira konfigurazioak, banaketak, instalakuntzak, zerbitzuak edo proiektuaren diseinua aldatzen duten obrarik edo elementuen instalaziorik egin, eta, ezingo dira itxiturak eta plaza babesleak jarri eta ezingo dira markak edo seinaleztapenak aldatu; bakarrik Getxoko Udalak egokitzat jotzen dituen jarduerak egin ahalko dira, edo udalak baimena emanaz gero, udalak baimenduak.

j) Aparkalekuko plazak ezingo dira banatu bi plaza edo gehiago lortzeko edo ezingo dira elkarrekin batu plaza berri bat sortzeko.

- k) Zirkulazio kaleak, oinezkoentzako eremuak eta, orokorrean, aparkalekuko elementu komunak guztiek erabiltzeko dira, eta ezingo dira ibilgailuak utzi.
- l) Egoiliarrek eta abonatuak gailu pertsonal eta besterenezin bat izango dute baimendutako ibilgailuarekin aparkalekura sartzeko, eta, hala badagokio, egoiliarren plazetara edo udalak ezarritako gordetako plazetara sartzeko. Txandakatze erabiltzaileek, aparkalekura sartzeko sarrera kontrolean tiketa jaso beharko dute. Bertan agertuko da zein egunetan eta ordutan sartu diren, eta ezingo dira aparkalekura sartu tiketik gabe, albo batera utzita, udalak onetsitako bestelako sarbide sistemak ezarri ahal izatea.
- m) Salbuespenez, aparkatutako ibilgailua matxuratzen bada, berariaz baimendu ahal izango da mekaniko bat bere ibilgailuarekin doan sartzeari matxuratutako autoa konpontzera. Mekanikoa bakarrik matxuratutako ibilgailua bere kabuz atera ahal izateko denboran egongo da aparkalekuan, eta, beharrezkoa bada, dimentsio egokiak dituen garabia sartu ahal izango da doan, matxuratutako ibilgailua tailer batera eramateko. Inguruabar horrek ez du matxuratutako ibilgailuak ordaindu beharreko prezioa salbuesten. Ezingo dira txapa, pintura, tapizeria, leihoak edo bestelakoak konpondu, ibilgailuak zirkulatu ahal izateko beharrezkoak ez badira.
- n) Erabiltzaile guztiek aparkalekuaren mantentzea zaindu beharko dute, zakarrontzietatik edo bilketa puntuetatik kanpo hondakinak ezingo dituztelarik bota edo ezingo dutelarik likidorik isuri, eta, orokorrean, instalakuntzak zuzentasunez erabili beharko dituzte.
- o) Erabiltzaile guztiek aparkalekuko kontrol eta zaintza langileek emandako jarraibideak bete beharko dituzte. Hala, langile horiek plaza batzuetarako sarbidea mugatu ahal izango dute edo trafiko baldintzak aldatu ahal izango dituzte arrazoi justifikatuak egonez gero eta udalak kontrola bere gain hartu arte eta behin betiko neurri bat ezarri arte.
- p) Erabiltzaile guztiek, aparkalekura sartzeari, eskubidea izango dute instalakuntza komunak erabiltzeko, besteak beste, oinezkoentzako sarbideak, igogailuak, komunak, eta abar. Hala ere, batzuk, segurtasun arrazoiak direla-eta, aparkalekuko langileek kontrolatu ahal izango dituzte. Era berean, instalakuntzak segurtasun baldintzak betez erabiltzeko eskubidea izango dute hirugarrenek sortutako kalteak babestu gabe eta aparkalekuko langileek tratatu arretatsua eta adeitsua eman beharko diete.
- q) Aparkalekuko bulegoetan erreklamazio orriak eta gorabeheren orriak egongo dira; horien araubide espezifikoa araubide honen dagokion atalean jasota dago.
- r) Prestazioa segurtasun eta eraginkortasun baldintza egokietan emateko adina langile izango ditu zerbitzuak, eta telekudeaketa egin ahal izango da langileak falta direnean. Erabiltzaileek inolako deserosotasun, arrisku edo berandutzarik jasatea ekidindo da.
- s) Indarrean dagoen prezioen koadroa beti erakusgarri egongo da, erabiltzaileek ikusteko leku egoki batean.

3. Abonatuaren sisteman udalaren irizpideekin bat eginez modalitate ezberdinak ezarri ahal izango dira, eta udalak hori aldatu ahal izango du, hasieran aurreikusitakoaren eskari errealearen arabera. Edonola ere, ordainketak makinetan egingo dira txartelarekin edo diruarekin aurreordainketak egin behar direnean. Zenbatekoak ezingo du gainditu ordainketari dagokion ordu kopurua, baimendutako prezioa oinarri hartuz zenbatutakoa. Abonatuaren modalitate berriak udalak ezarriko ditu, organo eskumendunarekin aurretiaz akordioa egin ondoren.

4. Desgaitasuna duten gidarientzako plaza kopuru bat ezarriko da, indarrean dagoen legeriarekin bat eginez.

5. Ibilgailu elektrikoentzako partzela eremu bat ezarriko da (hasiera batean, 7 partzela). Birkarga zerbitzua interesatuek erabili ahal izango dute, dagozkion ordainketa eta prezio metodoekin bat eginez. Ibilgailu elektrikoentzako partzelen zuzkidura udalak gehitu ahal izango du merkatuko baldintzek eta sektorearen egoerak hala gomendatzen dutenean, eta, hala, pixkanaka, erregai fosilak erabiltzen dituzten ibilgailuen erabilera gutxitzeko, sektorean ezarri daitezkeen xedapenekin, arautegiekin edo araubideekin bat eginez. Bilakaera zalantzazkoa denez eta pixkanaka gauzatuko dela aurreikusi denez, beharrezkoa izanez gero, udalak elektrikoak ez diren ibilgailuek partzelako horiek erabili ahal izatea baimendu ahal izango du aparkalekua beteta dagoenean eta ibilgailu elektrikoen plaza libreak daudenean; inguruabar hori zerbitzua ematen duen enpresaren bidez kudeatuko du.

6. Aurretiaz ezarritakoa albo batera utzi gabe, aparkalekuan debekatuta egongo dira hauek:

- a) Sartzeko arrapalaren kanpoan adierazitako altuera edo pisua gainditzen duen ibilgailu bat erabiltzea, kasu honetan, 2,10 m eta PMA<2.000 kg.
- b) Seinaleztatutako plazen neurriak gainditzen dituzten ibilgailuekin sartzea.
- c) Aparkalekuko erabiltzaileak ez diren pertsonak sartzea eta zerbitzuak erabili ondoren, beharrik gabe bertan geratzea.
- d) Espezie guztietako animaliak sartzea, salbuetsiz, lotuta dauden txakurrak eta hezita dauden etxeko animaliak. Ez dago baimenduta, era berean, gauzak saltzea, merkataritza ibiltaria gauzatzea edo antzeko jarduerak egitea.
- e) Erregaiak, material errekorrak edo arriskutsuak sartzea, salbuetsiz, noski, erabiltzaileen ibilgailuetako biltegietako erregaia.
- f) Oinezkoak ezingo dira ibili ibilgailuak sartzeko eta irteteko arrapaletan, ez kanpokoetan, ez aparkalekuko solairuen artekoetan. Oinezkoek, derrigorrez, oinezkoentzako eskailerak edo igogailuak erabili beharko dituzte, eta aparkalekuan ibiltzean, horretarako eremu egokietatik igaroko dira.
- g) Suak piztea eta erretzea.
- h) Aparkalekura edo instalazioetara zerbitzu emailearen aurretiazko baimenik gabe sartzea, besteak beste, komunetara, aldageletara, eta abarrera.
- i) Instalakuntzetarako edo erabiltzaileentzako arriskutsuak izan daitezkeen ibilgailuak eta/edo gidariak sartzea.

7. Eskari baxuko orduetan, eta, bereziki, gauetan, itxitura, kontrol eta segurtasun sistemak ezarri ahal izango dira ibilgailuen eta oinezkoen sarbideetan, albo batera utzi gabe komunikatzeko mekanismoak, urrutitik irekitzeko sistemak eta pertsonen irteera iraunkorrak egotea.

8. Udalak, zerbitzua emango duen enpresaren bidez, une oro zainduko du instalakuntzak egoera onean daudela, horien funtzionalitateari eta kontserbazio egoera onari dagokionez. Enpresa horrek udalari jakinaraziko dizkio zerbitzuen pleguan jasota ez dauden inguruabarrak edo egoerak, eta bere kostura izango dira erabiltzaileenganako kalteak eta arazoak ekiditeko segurtasun neurriak, udalak hori bere gain hartu arte.

## **5. ARTIKULUA ORDUTEGIA.**

1. Egoiliarren eta txandakatzeen aparkalekua urteko 365 egunetako 24 orduetan irekita egongo da.

2. Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua pleguetan ezarritakoarekin bat emango du, eta prestazio presentziala eta telematikoa uztartuko ditu prestazio presentziala eman ezin denean. Beraz, une oro, instalakuntzako abisuak eta gorabeherak jorratu ahal izango dira.

## **6. ARTIKULUA SARTZEA, ZIRKULATZEA ETA APARKATZEA.**

1. Ibilgailuarekin aparkalekuan sartzeko, erabiltzaileek sarrerako arrapalan kokatutako makinak emandako ordutegi tiketa jaso beharko dute.

2. Abonatuen eta egoiliarren kasuan, abonatuaren edo egoiliarren txartela erabili beharko dute. Hala ere, erabiltzaileentzako erosoagoak diren bestelako sarbide prozedurak ezarri ahal izango dira (besteak beste, matrikula antzematea), beharrezkoa izango delarik edonola ere, txartela eramatea. Hasiera orduaren aurretik sartuz gero, gehiegizko denbora indarrean dagoen prezioan ordaindu beharko da ibilgailua atera aurretik, eta ez da bermatuta egongo ibilgailua abonatuaren plazan aparkatu ahal izatea. Horrez gain, aurretiaz, ohiko aparkatzeko tiketa eskuratu beharko da, ordutegi tartearen irteeran deuseztatu egin beharko dena, aparkalekutik atera aurretik.

3. Aparkalekuaren barnean eta sarbideetan, erabiltzaileek, zorroztasunez bete beharko dituzte honakoak:

- a. Zirkulazio kodeko arauak eta legezko xedapenak edo araubide osagarria.
- b. Trafikoko seinale bertikalak eta horizontalak.
- c. Zerbitzua ematen duen enpresak jarritako seinale guztiak.
- d. Kartelen bidez jakinarazitako jarraibideak.
- e. Aparkalekuko langileek ahoz adierazitako jarraibideak.
- f. Araubide honetako arauak.

4. Aparkaleku barnean eta sarbide arrapaletan bete beharreko gehienezko abiadura 10 km/ordukoa izango da.

5. Ezingo da ibilgailuen arteko aurreratzerik egin, salbuetsiz, geldirik dagoen ibilgailu bat aurreratzea, eta, betiere, zirkulazioak ahalbidetuz gero.

6. Atzerako martxa bakarrik ibilgailua aparkatzeko erabili ahal izango da, eta, salbuespenez, guztiz beharrezkoa denean.

7. Ibilgailua aparkatuta dagoenean, gidariak motorra itzaliko du eta eskuko balazta jarrita utziko du. Irtetean, motorra ito-puntuaren ibilgailua martxan jartzeko bakarrik jarriko da.

8. Matxurak gertatuz gero, erabiltzaileek aparkalekuko langileei jakinarazi beharko dizkiete eta ibilgailuak ohiko zirkulazioa oztopatzen badu, langileen jarraibideak bete beharko dituzte.

9. Ezin da ito-puntuaren zirkulatu sarbide arrapaletan edo solairuen arteko arrapaletan, ezta ere aparkalekuko bestelako arrapaletan. Ezingo dira arrapalak erabili ibilgailuaren motorra martxan jartzeko.

10. Erabiltzaileak aparkalekuan egon ahalko dira zerbitzua erabiltzeko beharrezko jarduerak egiten dituzten bitartean, arrazoizko denboran zehar eta aparkatzeko eta irteteko beharrezko denboran.

11. Erabiltzaileek, kobratzeko makinan eta ibilgailua aparkalekutik atera aurretik, beren ordutegiaren zenbatekoa ordaindu beharko dute, une bakoitzean indarrean dauden prezioekin bat eginez.

12. Ibilgailua aparkalekura sartzean eta tiketa jasotzean, dagokion ordainketa egin beharko da indarrean dagoen udal araubidearekin bat eginez, baita ere, arrazoiak edozein izanda, plazak eskuragarri egon eta aparkatu ez badu (arrazoi horiek zerbitzua ematen duen enpresari egotzi ezin direnean, betiere).

13. Irteteko, ibilgailu abonatuak bezeroaren identifikazio txartela aurkeztu beharko dute. Hala ere, erabiltzaileentzako erosoagoak diren bestelako sarbide prozedurak ezarri ahal izango dira (besteak beste, matrikula antzematea), beharrezkoa izango delarik edonola ere, txartela eramatea. Ordutegia gaudituz gero edo orduaren aurretik sartuz gero, gehienezko denbora hori kutxan ordaindu beharko da indarrean dagoen prezioan eta ibilgailua aparkalekutik atera aurretik.

14. Aparkalekuko tiketa galduz gero, erabiltzaileak horren berri eman beharko die aparkalekuko langileei ibilgailua atera aurretik eta NANA eta ibilgailuaren egiaztapen dokumentazioa aurkeztu beharko ditu; horiek egin ezean, ezingo du ibilgailua aparkalekutik atera. Erabiltzaileek, indarrean dagoen prezioa ordaindu beharko dute, aparkalekuko datu baseko erregistroekin bat eginez. Zerbitzua ematen duen enpresak ordainagiria emango die erabiltzaileei.

15. Erabiltzaileek aparkalekuko egonaldiaren ordainketa ziurtagiria eskatu ahal izango dute.

16. Hamabost egun baino gehiago aparkalekua erabiliz gero, eta horren berri zerbitzua ematen duen enpresari ematen ez bazaio, ibilgailua abandonatu egin dela ulertuko da eta enpresak aparkalekutik atera ahal izango du, udaleko biltegietara bidaliz. Kasu horretan, bide publikoan abandonatutako ibilgailuen gaineko indarreko xedapenak aplikatuko dira. Enpresak eskumena izango du aparkalekuko egonaldiaren zenbatekoa erreklamatzeko eta ibilgailua bertatik eramateko gastuak ere erreklamatu ahal izango ditu, legezko prozedurekin bat eginez.

## **7. ARTIKULUA PREZIOAK.**

1. Txandakatze prezioak indarrean dagoen udal araubidean zehaztutakoak izango dira, eta txandakatzerako eguneroko gehienezko kopuru bat egongo da.

2. Aparkalekurako indarreko prezioak ibilgailuen sarbideetan eta ordainketa puntuetan ikusgarri egongo dira.

3. Abonuentzako prezioak aparkalekuko kontroleko bulegoetan jarriko dira, bertan ematen baitzaie arreta erabiltzaileei.

4. Erabiltzaileek tiketa erakutsi beharko dute edo hala badagokio, abonatuaren/egoiliarren identifikazio txartela, langileek hala eskatuta, ibilgailua aparkaleku barnean dagoen bitartean.

5. Prezioak seinaleztatutako aparkalekuko plaza bakoitzarentzako balioarriak izango dira, partzialki bada ere, okupatuta egonez gero. Beraz, ibilgailu batek plaza bat baino gehiago okupatuz gero, egonaldia okupazio errealarekin edo gainditzearekin bat eginez ordaindu beharko da.

6. Erabilitako aparkaleku zerbitzuaren prestazio gisa erabiltzaileek udalari zordundu ahal izango dizkieten prestazio ekonomikoak jasotzeko, udalak, administrazioak edo indarrean dagoen legeriak zehaztutako legezko bitartekoak erabili ahal izango ditu.

## **8. ARTIKULUA KALTEAK.**

1. Udalaren betebeharrak eta erantzukizunak Ibilgailuen aparkalekuen kontratuak arautzeko azaroaren 14ko 40/2002 Legean definitutakoak izango dira. Instalakuntzaren titularrak ziurtagiria daraman pertsonari itzuliko dizkio emandako baldintzetan ibilgailua, eta haren osagaiak edo osagarriak, ohikoak eta arruntak direnak beraien izaerarekin edo balioarekin bat eginez, dagokion ibilgailu motan. Edonola ere, finkoak ez diren eta atera daitezkeen osagarriak, besteak beste, musika aparatuak eta telefono mugikorak, erabiltzaileek kendu beharko dituzte, eta, beraz, aparkalekuko titularrak ez du izango horien gaineko erantzukizunik.

2. Udalak aseguruia izango du suteen eta erantzukizun zibilaren aurrean, aparkalekua eta barneko ibilgailuak estaliko dituelarik, sortu ahalko liratekeen ezbeharrak estaliz.

3. Gidariekin eta ibilgailuaren jabeekin ibilgailuekin beste pertsonen, ibilgailuekin, instalakuntzei eta abarrei sortu ahalko dizkieten zauri eta kalteen gaineko ardurak izango dute, betiere, horiek aparkalekuan eta sarbideetan gertatuz gero, eta berehala, aparkalekuko langileei jakinaraziko dizkiete sortu edo ikusi dituzten kalteak eta galerak. Derrigorrezkoa da baita ere erabiltzaileek edo aparkaleku barnean edo sarbideetan egon daitezkeen pertsonen sortutako kalteak edo galerak jakinaraztea.

4. Istripuak sortzen dituzten erabiltzaileek, aparkalekutik irten aurretik, adierazpena sinatu beharko dute, sortutako kalte-galerak zeintzuk izan diren jasoz.

## **9. ARTIKULUA ERREKLAMAZIOAK**

1. Aparkalekuko bulegoetan erreklamazio orriak eta gorabeheren orriak egongo dira. Horietan, erabiltzaileek, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izango dituzte, aparkalekuari edo kudeaketari buruzko oharrak jakinarazi ahal izango dituzte beraien erabilera eskubideak kaltetu badira eta araubide honen kontrakoak direla uste badute. Horrez gain, mantentze arazoak edo bestelakoak ere jakinarazi ahal izango dira.

2. Balioa eta eraginkortasuna izateko, erreklamazio guztietan eguna, ordua, izen-abizenak eta erreklamazioaren NANA agertu beharko dira (pasaportearen edo bizileku baimena, hiritar atzerriarrak izanez gero), eta erreklamazioaren gertakariak eta sinadura ere jaso beharko dira.

3. Erreklamazio eta gorabeheren orriak udalak jasoko ditu, beharrezko ondorioak izan ditzan.

## **10. ARTIKULUA ABONATUEN ARAUBIDEKO ERABILTZAILEAK.**

1. Abonatuaren kontratuarekin, aparkalekuko plaza bat okupatzeko eskubidea jasotzen da abonatuaren arabera ordutegi batean, eta, horrek ez du esan nahi plaza hori lehentasunez erabiltzeko eskubiderik dagoenik. Hasiera batean, P-2 solairuan 40 partzela gordeko dira eguneko, gauetako eta egun osorako abonatuentzako, berariaz egoiliarak ez direnentzako, hain zuzen ere.

2. Horrelako abonatuak emateko eta eskuratzeko udalak partzelak esleitzeko zehaztutako berariazko pleguan xedatutakoak beteko dira. Hasierako deialdian eskaintzak eskaria gainditzen badu, lehenik eta behin, egon daitekeen eskariaren erreserba zenbakia aztertuko da, eta plaza horiek bestelako baimendutako erabilerentzat gordeko dira 3 solairuetako edozeinetan. Eskariak hasieran zehaztutako abonamenduen eskaintza gainditzen badu, partzelak zozketaren bidez esleituko dira eta itxaron zerrenda bat sortuko da. Udalak, abonamendu mota bakoitzarentzako gehieneko abonatu kopurua zehaztuko du instalakuntzaren gehieneko funtzionalitatea bermatzeko, eta, hori guztia, merkatuaren eta erabilera baldintzen arabera egokitu ahal izango da. Beharrezkoa bada, itxaron zerrendak sortuko dira abonamendu mota bakoitzarentzat, betiere, udalak ezarritako irizpideekin bat eginez.

3. Abonatuak, onartuak izaten direnean, datu pertsonalak, etxebizitzako datuak eta ibilgailuarenak emango dituzte.

4. Abonatuak, hileko kuota ordaindu beharko diote aurretiaz zerbitzua emango duen enpresari esleipena egiten denean eta/edo abonamendua jasotzean, udalak zehaztutako metodoekin bat eginez (hasierako zozketa eskariak eskaintza gainditzen badu, makinan edo aparkalekuko arreta pertsonalizatuko leihatilan). Aurretiazko ordainketa eta erreserbatutako abonamenduaren epearen eta modalitatearen ziurtagiria, ordainketaren justifikazio tiketa izango da, txartelarekin edo diruz ordaindutakoa.

5. Abonamenduak, eskubidea emango du izen-emate erregistroan jasotako ibilgailuarekin bakarrik aparkalekua erabiltzeko, eta ezingo da aparkalekua beste ibilgailu batekin erabili, nahiz eta jabe berarenak izan ibilgailu biak. Ezinbesteko arrazoiengatik (matxurak, istripuak, eta abar) abonatuak behin-behinean aldatzea ez dagoen ibilgailu bat erabili behar badu, beharrezko aurrerapenarekin baimena eskatu beharko du, hala egiten ez badu, bere egonaldiak indarrean dauden txandakatze prezioetan eta zatikatze ordainketetan ordaindu beharko dituelarik.

6. Ibilgailua behin betiko ordezkatzeko bada, udalari jakinarazi beharko zaio, izen-ematearen eta abonatuaren datuak eguneratzeko.

7. Abonatuaren datu pertsonalak aldatzen direnean, udalari jakinarazi beharko zaizkio berriak.

8. Udalek abonatuari kodedun txartel bat emango die, eta derrigorrez erabili beharko dute ibilgailuarekin sartzeko eta ateratzeko, albo batera utzi gabe etorkizunean ezarri ahal izango diren bestelako kontrol sistemak.



9. Abonatuen txartela jasotzean, erabiltzaileek txartelaren kostua ordaindu beharko dute.
10. Udalari egotz ez dakizkiokeen arrazoiak direla-eta bezero bati txartel berria eman behar izanez gero, bezeroak txartela ordezkatzeko/berritzeko kostua ordaindu beharko du.
11. Aparkalekua abonatuak ordutegitik kanpo erabiltzen bada, norbere ordutegitik kanpoko denbora ordaindu egin beharko da, txandakatze eta zatikatze ordainketa araubidean indarrean dagoen prezioan. Horretarako, autoa hartu aurretik kutxatilatik igaro beharko dira bezeroak abonatu tiketarekin edo aparkalekuko tiketarekin, eta dagokion zenbatekoa ordaindu beharko dute.
12. Dagokion txartela erabiltzen ez bada, aparkalekuko sarreran eta irteeran matrikula antzemateko sistemarik ez dagoen kasuetan, baliteke egonaldia txandakatze eta zatikatutako ordainketa araubidean indarrean dauden prezioetan ordaindu behar izatea, salbuetsiz, sistema matxuratuta egoteagatik (horren berri eman beharko zaio zerbitzua ematen duen enpresari), zaintza zerbitzuak konpondu ahal izatea eta gertatu dena azaldu ahal izatea.
13. Abonatuaren txartela galtzen bada edo lapurtua izanez gero, udalari ahalik eta azkarren horren berri eman beharko zaio, berehala bajaran emateko eta txartela beste norbaitek erabiltzea saihesteko.
14. Kontrola gauzatzeko, enpresak erabiltzaileei eskatu ahal izango die abonamenduak iraun bitartean itsasgarri txiki bat jartzeko ibilgailuan, ikusi daitekeen leku batean, hala, abonatua dela jakinarazteko.
15. Honela kobratuko dira abonamendu kuotak:
- a. Kontratutako aldirako aukeratutako kuota gehi hasierako abonatuaren txartela ematea, diruarekin eta abonamendua sinatzen denean aparkalekuko makinetan ordainduta; makinak emandako tiketa izango da zerbitzuaren frogagiria. Gehienez ere 12 hilabeteko abonamendua ordaintzeko aukera egongo da modalitate guztietan, eta gutxieneko zatikatzea hilabetekoa izango da.
16. Abonamenduan bajaran emanez gero, horren berri idatziz eman beharko da gutxienez 15 egun aurretik, hala, zerbitzuak kontrola gauzatu ahal izateko. Betekizun hori betetzen ez bada, berekin ekarriko du hurrengo kuotaren eskubidea izatea. Abonamenduetan, ezingo da aldi baterako bajaran egin. Abonatu egon eta bajaran ematean, ez da eskubiderik sortuko abonamendu berri bat eskuratzeko. Hurrengo hilabeteko kopuruak itzuli ahal izango dira erabilerarik gabe, betiere, aurreko hilabetean, 15 egun aurretik, horren berri emanez gero. Abonamenduan bajaran ematen bada, abonatuaren txartela itzuliko da eta horrek ez du jasotako txartelaren kopurua jasotzeko eskubiderik emango.
17. Enpresak udalari eskatu ahal izango dio alde bakarretik abonamendua deuseztatzeko, abonatuak araubidean aurreikusitako funtzionamendu arauen bat urratzen badu; horrek ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango, soilik, erabili gabeko aldiaren zenbatekoaren itzulketa, berdina gertatuko delarik bajaran ematean.

## 11. ARTIKULUA EGOILIARRAK.

1. Udalak esleitutako izendun plazak eskuratzen dituztenak izango dira, udalak onetsitako hautaketa irizpideekin bat eginez, araubide honen eranskinean jasota daudenak, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzaren mugikortasun murriztuaren txartela duten pertsonentzat lehentasunez gordetako 3 partzela daude, eta, horiek betetzen ez badira, udalak, partzela horiek gainerako eskatzaileentzat eskuragarri jarri ahal izango ditu. Aparkalekuko P-3 solairuan 86 plaza egongo dira egoiliarrentzat.

2. Zerrenda ofizialetik sortuko da ordezkoen zerrenda, eta, hala badagokio, hutsik geratu ahal izango diren plaza posibleetan interesa duten pertsonen zerrenda eta ordena. Udalak, erabilera zerbitzuko aukera bakoitzeko eskari errealean arabera, P-2 solairuan egoiliarrentzako plaza gehiago eskaini ahal izango ditu, egokitzat joz gero.

3. Egoiliarrek urtebeteko zenbatekoa aurretiaz ordaindu beharko dute, eta esleipenak gehienez ere 4 urterako egingo dira. Epe hori igaro ondoren, deialdi berri bat egingo da udalak martxan jarritako prozesuan izena eman duten egoiliarren artean partzelak esleitzeko. Antzinakotasunak ez du inolako eskubiderik sortuko esleipen berrian; esleipen berri hori, hasierako zozketan moduan, deialdi baten bidez egingo da, publizitatearekin eta lehiarekin, eta udalak iragartzen duen deialdian ezarritakoarekin bat eginez.

4. Udalak, partzela esleitzean, kuotaz gain, gordailua ordaintzeko eskatu ahal izango du, hain zuzen ere, hileroko osagarriari dagokiona. Zenbateko hori egoiliarrei itzuliko zaie bajaran emandakoan, betiere, prestazio ekonomikoen ordainketa egunean izanez gero eta zehaztutako betebeharrak betez gero.

5. Egoiliarrek, era berean, instalakuntzak erabiltzeko egoiliarren txartela ordaindu beharko dute, emate kontzeptuan. Txartel horrek dagokion matrikularentzat balioko du eta ezingo da besterendu. Hala, ezingo da txartela beste ibilgailu batekin erabili aurretiazko baimenik gabe eta zerbitzua ematen duen enpresak horren berri izan gabe. Inguruabar horiek justifikatuta eta egiaztatuta egongo dira, eta datu basean dagozkion aldaketak egingo dira (ibilgailu aldaketak, ibilgailuen matxurak edo behin-behineko antzeko inguruabarrak, egoiliar baimenduak instalakuntza zuzentasunez erabiltzea galarazten dutenak).

6. Egoiliarrek bajaran emateko kontratuan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte. Betekizun hori betetzen ez bada, berekin ekarriko du hurrengo kuotaren eskubidea izatea. Ez dira aldi baterako bajak baimenduko. Egoiliarren plaza bat adjudikatuta izanez gero eta bajaran emanez gero, ez da eskubiderik sortuko berriz ere plaza eskatzen baldin bada.

7. Egoiliarrek goiko solairuak erabili ahal izango dituzte, baita gainerako erabiltzaileek ere; hala, derrigorrez une bakoitzean onartuko diren txandakatze prezioak ordaindu beharko dituzte eta ez dute deskonturik jasoko.

8. Egoiliarren plazak ezingo dira baimenik gabeko ibilgailuekin okupatu, salbuetsiz, artikulua honen 5. puntuan xedatutako kasuak; hala, zerbitzua ematen duen enpresari jakinarazi beharko zaizkio araubidean ezarritako arauen urratzeak, dagozkion neurriak ezarri ditzan.

9. Garajeko partzelak ezingo zaizkie hirugarrenei laga inolaz ere. Edozein arrazoi dela-eta, baja emanez gero edo partzela horri adjudikatzeko baldintzak aldatuz gero, partzela eskuragarri jarriko da, zerrendako hurrengo pertsonari adjudikatu ahal izango zaiolarik.

10. Zerbitzuak kontrola dezan, baja idatziz jakinarazi beharko da, gutxienez 15 egun lehenago. Baldintza hori ez betetzeak hurrengo kuota ordaintzea ekarriko du. Ez da inolako aldi baterako bajarik onartuko. Partzelaren esleipendun izateak eta baja emateak ez du eskubiderik sortuko berriro eskatzen bada. Erabileran ordaindu ez diren hurrengo hilekoen zenbatekoa itzuli ahal izango da, baldin eta 15 egun lehenago jakinarazten bada, idatziz, kargu-uztearen aurreko hilabetean. Partzela baten esleipendun gisa baja ematean, egoiliar-txartela itzuli beharko da, eta ez du txartela ematearen zenbatekoa itzultzeko eskubiderik sortuko

## **12. ARTIKULUA. ZERBITZUA IKUSKATZEA, MANTENTZEA ETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA.**

1. Getxoko Udalak, kontratuaren arduradunaren bidez edo hark eskuordetzen duenaren bidez, aparkalekuko eta instalazio guztietako kontserbazio egoera ikuskatu ahal izango du, baita ere jarduera garatzen den eta zerbitzua ematen den modua. Hala, uneoro ikuskatu ahal izango du aparkalekuaren okupazioak pleguaren klausulekin bat egiten duen, eta zerbitzua ematen duen enpresak, udal administrazioari okupazio datuak eman beharko dizkio hark eskatzen duen bakoitzean.

2. Zerbitzuaren funtzionamenduan sortu ahalko diren kalteengatik hirugarrenei eman beharreko kalte-ordainak (horiek enpresaren edo enpresako langileen ardura izanez gero), zerbitzua ematen duen enpresak bere gain hartuko ditu, udalak kalterik ez duelarik jasoko. Hala, enpresak dagokion erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko du, salbuetsiz, erantzukizuna udal administrazioak zuzenean eta idatziz egindako agindu bat betetzetik eratorzea.

3. Zerbitzua ematen duen enpresak aparkaleku zerbitzua zuzenean zainduko du, eta zeregin hori ezin izango dio hirugarren bati laga, salbuetsiz, administrazio publikoen kontratuei buruz indarrean dagoen legerian adierazitako aurreikusitako inguruabarrak eta prozedurak.

4. Udalak zerbitzuaren ordena ona zainduko du, eta beharrezko jarraibideak emango eta erabakiko ditu.

5. Udalak, era berean, instalakuntzak egoera zuzenean mantentzen direla zainduko du, eta enpresaren eta udalaren arteko kontratuan estalita ez dagoenaren berri emango du, segurtasuneko gutxieneko baldintzak ezarriz, udalak arazoa konpondu arte.

6. Erabiltzaileek, instalakuntzaren ohiko funtzionamendua kaltetzen duten arazoen berri emango dute.

7. Instalakuntzak matxuratuz gero, ezinbesteko inguruabarrak direla-eta, obrak, ezustekoak, ekidin ezinezko egoerak eta antzekoak gertatuz gero, udalak (edo udalak hala aginduta zerbitzua ematen duen enpresak), behin-behinean ibilgailuen sarrerak eta irteerak mugatu ahal izango ditu, arazoa

konpondu arte. Erabiltzaileek, egoera horretan, ezingo dute kalte-ordainik eskatu, kontsumitu gabeko zenbatekoaren itzulketa ez ezik, edo arazoaren ondorioz ibilgailua denbora gehiegi egotearen ordainketa salbuestea ez ezik.

### **13. ARTIKULUA. ERABILERA EZBERDINETARAKO ESLEITUTAKO PLAZEN ZENBAKIA ALDATZEA.**

1. Araubide honetan aurreikusitako plazen zenbakiak erabilera ezberdinetarako aldatu behar izanez gero, alkatetzak egingo du hori, eskariarekin eta zerbitzuaren prestazio onenarekin bat eginez.

### **14. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA.**

#### **1.- ARAU-HAUSTEAK.**

Arau-haustetat hartuko dira egoiliarren edo abonatuaren ekintza edo ez-egite oro, kontratuan, plegu honetan, aparkalekuko barne araubidean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako betebeharrak urratzen baditu.

Arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

Arau-haustek, dena den, udalaren ohartarazpena ekarriko dute, gertaera horiek harreman juridikoan eragin ditzaketan ondorioak edo erantzukizunak gorabehera.

Ustezko arau-hausteengatik egindako espedientea izapidetzean, interesatuari entzungo zaio, 10 egun balioduneko epean alegazioak egin ditzan. Udalak, bere aldetik, dagozkion txostenak egin ondoren ebatziko du.

#### Arau-hauste oso larriak:

- 1) Obrak egitea.
- 2) Garaje-plaza hirugarren bati lagatzea edo alokatzea. Xede horretarako nahikoa izango da erkidegoak edo udalak egiaztatzea errentaria titularra ez den beste ibilgailu batekin garajea erabiltzen ari dela.
- 3) Plazan erregaiak edo produktu sukoi eta arriskutsuak gordetzea.
- 4) Lokalean edo aparkatuta dauden beste ibilgailu batzuetan eragin ditzakeen kalteen ordainketak ez egitea.

#### Arau-hauste larriak:

- 1) Baimendutakoa ez den beste helburu baterako erabiltzea plaza.
- 2) Udalak norberaren garaje-plazaren ikuskapen teknikoa edo zuzeneko kontrola egiten ez uztea.
- 3) Urtebetean bi arau-hauste arin egitea.

#### Arau-hauste arinak

- 1) Betebeharrak aitzakiarik gabe ez betetzea edo arduragabekeriak joketzea.
- 2) Autoak garaje-plazaren barruan nahiz kanpoan garbitzea.
- 3) Udalak edo aparkalekuko administrazioak emandako aginduak ez betetzea.
- 4) Garaje-plaza eta/edo guztien instalazioak kontserbazio eta garbiketa egoera onean ez mantentzea.
- 5) Aparkalekuaren elementu komunak oztopatzea, edozein objektuarekin, udalaren, edo hala badagokio, jabeakideen erkidegoaren baimenik gabe.
- 6) Zarata egitea eta/edo musika-tresnen bolumena igotzea, hirugarrenak gogaitzen baditu.

7) Baldintzen plegu honetan eta errentamendua arautu eta aurretik adierazi ez diren gainerako arauetan errentariarentzat ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

## 2.- ZEHAPENAK.

Arau-hauste oso larrien zehapenak esleipenaren indarraldia murriztea sortu dezakete, edo esleipena iraungi ahal izango da baita ere.

Arau-hauste arinetan 750 eurorainoko zehapena jarri ahal izango da, arau-hauste larrietan 1.500 eurorainokoa eta arau-hauste oso larrietan 3.000 eurorainokoa.

Zehapenak ezartzeak ez dio udalari oztoporik jarriko esleipenaren iraungitzea ezartzeko, horretarako inguruabarrak gertatuz gero. Ondorioz, erabiltzailea ezin izango da esleipenaren iraungitzearen kontra egon, udalak, plegu honetan aurreikusitako diruzko zehapenak ezartzeko duen aukera alegatuz.

Aurreikusitako zehapenak ezartzeko, erreferentziazko alorreko araubide orokorrean ezarritako legezko prozedura jarraituko da.